

## Erriaren bideak bat

*Alderdi*, 260. zk., 1971-02.

Norbaitek beste zerbaitzaz esan zuan antzera esateko: erri bat ez da gizon bat, eta ezta gizon sorta bat ere.

Pertsona batk buru bakarra du; eta erri bat, berriz, buru askok osatzen duten zerbait da. Pertsona batek nai-eta-nai ezko ikus-bide berezi bat ba du, eta erriak bai franko; geiegi ez, baiñan bai ugari. Pertsona batek berea dan anima salbatzeko bide bat billatzen eta arkitzen-edo du, eta erriak era inpernua. Pertsona bat, esate baterako, larria da, edo lasaia da, (ajolagabe osoak ere ba dira franko), eta erri bat lasai-estu, estu-lasai eta ajolagabez eta traidorez ere egiña, osatua, izaten da. Esan nai duguna da: pertsona ain ximplea ez bada ere, erri bat askoz ere konplejoagoa dela.

Gizona (eta erria ere bai) bere girokoa izan oi da; ez da gizona girora burruka gabe leporatzen, entregatzen, baina ezin da gizona murgilduta bizi dan giro ontatik osorik libratu. Ala, gure gaurko giroak markatu ditu Euzkadiko erria eta gizona, giro onek il du Roberto Perez Jauregui eibartar jatorra. Egi paltak sortu arazi duan zuloa (leize-zuloa) itxaropenez, etzipenez, minez, alienazioz, odolez, ametsez, elkarrenganako sinezkeriz, ezinez, susmoz (geienetan susmo txarrez), kezkaz, (aidea utsa betetzera berez aixa joan oi dan bezelatsu) etorri dira naasian gure bakoitzak bereko duan utsunea, zulo beltz ori, betetzera.

Au, agerian dagon au, gure kolko barruan aitortzekoa eta beste norbaiteri esatekoa da; bear baititugu gauz batzuk aitortu, ez bakarrik egia agerian onen konzientziak bakarrik salbatuko gaitualako. Gizonaren barru-barruko naastea, zorabioa, sendatzeko sustraietaraiño barruratu eta kontzientziatu bear den bezelatsu, ba dugu erri bezala, azterketa sakon bat egiteko bearra.

Billaketa au mingarria dela argi dago. Ala ere, milla eta milla izar-bide aldiz ohea da garaiz negar-damuak danok egitea; erantzun-bear onetatik ez da inortxo ere libratuko.

Eusko-Alderdi-Jeltzalea ez da gaurkotxea: irurogoi eta amabost urte osatu berria da.

Osatu esan dugu, ea itza ez dugu arinki erabili nai. Gure erriak gaur ainbeste-eta-ainbeste mugarri-bide latzetik barrena oneraiño ekarri bagaitu, bidean Alderdiak abarka asko egin, kurpil asko konpondu, indar bearrean zeuden askori odola eman, begi askori irakurgaia eta exemplua aurrean jarri kontzientzi askori pakea eman edo bear zuan ezin-egoneko eragiña sortu, eta erria palta zitzaien ainbesteri, orixe, erria bera, erakutsi zion: ikur nagusi bat palta zitzaion erri oneri ikurriña ere eman zion.

Egina (eta ondo egina bada obe) or dago, baiña, non dago Eusko-Alderdi-Jeltzalea gaur?

Bai, leen egindakoaren agerbide aitzekiarekin ez da gaur iñor salbatzen, ez da salbatuko; atzoko eta gaurko esanak gaurko aragiz mamitzen ez baditu ez da gerokoa, etortzekoa, salbatuko. Ez dugu, bear bada, Alderdian egin bear zen guzia egin. Nork egin du dana? Ez dugu, bear bada, batzuk espero zuten neurria ere bete. Ez dugu au ere

ukatzen; eta bai galdetu: nork egin du aal izan duan guzia? Elkar erantzuteak bide luze eta okerrera eramango giñuzke. Gaur, elkarrengandik urruntzen gaituanak baino elkar lotzen, josten, gaituanak garrantzi aundiagoa du eta garrantzi au guk eman bear diogu. Nola nai, esan bearra dago, eta esango dugu, agerian dagoan baiño zerbaitxo bat geiago izan dela Alderdiaren egintza. Aspaldikoa eta sustraikoa da dena; ain dago gure gogoan sartua askotan ez dugu ikusten. Arrainak ez du urik ikusten, eta baliteke onetarako bururik balu urik ba dan-edo ezko galderik egitea ere ez litzaiokela bururatuko; arnasa artzen duan gizon askok ez daki aiderik ba dan, aidea zer den eta zertaz osatua denik ere. Alaxe, betiko berez bezelakoak sentitzen baitituzte aidea eta ura gizonak eta arrainak. Alderdiaren izatearekin ere onelakotzeko zerbait gertatzen da. Ez gera, bear bada, gure erriaren gatz eta ogi guzia; ez noski; baina izan da aspalditik eta izango da aurrera ere, oraingoz bezela, gure erriaren bizi-biderako pilarri sendo bat.

Ikusi nai duanak ikusiko du kanpotik eta barrutik leen eta oraintsu egiñak izan diren amaika lanetan Alderdiaren eskua. Agerian ez dagoena, berean joango da argiz jazten. Ezin dugu egin bear dan guzia egin (onetarako bear ditugu anai-lagunak) bainan ez dugu ere egin dugun guzia esan.

Elkartasun bear bat ageri da emen. Itz asko galdu da orain arte elkartasun izeneko zulo beltz ortan; baiña jokabidez eta ekintzaz bete bear dugu leiza au; seriozki, gorrotorik gabe ta lelekeri gabe; eta neurritz, gizon-pausoak, politika arazoetan eman bear diran neurrian.

Gaur gure erriak gutxienez bi mailletan dauzka arazoak aztertu bearrak: 1) gurekikoak, gure erriak dauzkan arazoak, eta bestetik, 2) gure erria nakapean, kateatuta, irainduta, daukan zantpantzailea gandik nola libratu bear dugunak. Bi jo-muga oiei batera buru egin edo ez, bideak nola erabilli, jakingarriak dira. Azterketa onek lagunduko digu: batetik, indarrak bear ditugun tokian eta garaiean biltzen, eta elkarrengandik urrun ditugun iritziak beste denbora eta tokirako usten.

Ala, elkartzen gaituzten lanak aukeratu bear ginduzke leen, zuzenki eta leialki jokatu elkarrenganako konfiantza berria sortzeko.

Oraingoak orain eta gerokoak gero bear genituzke aztertu eta jokatu; eta elkartasun au erakundeen artekoa izan bearko luke, batez ere nolabait erriaren erantzunez jantziak dauden artekoak.

Euzkadi da gure elburu bakarra; bideak ba dira bat baiño geiago, eta ala bear ere; oinarri-lan batzuetarako, ordea, bear dugu elkarrekiko bide berri bat ireki.